



Euskadin, katalanei babesa emanaz eta erabakitzeke eskubidearen alde, hainbat gizarte erakunde zein erakunde sindikalek egindako deialdien aurrean zera jakinarazi nahi dugu:

- Euskadiko CC00ren ustetan nazio elkarbizitza arazo politikoei politikatik egin behar zaie aurre, elkarriketa eta negoziazioaren bitartez eraikitako adostasuna bilatuz eta tentsio zein konfrontazio estrategiak alde batera utzita.
- Errepresio penala eta poliziaren esku-hartzea ez dira gatazka politiko bati aurre egiteko erak, urriaren 1eko gertakarien inguruko analisisa egiten zuen gure erakundearen erresoluzio bakarrean jakinarazi dugun moduan.
- Ezin dugu aldebakarreko erabakiz independentzia adierazpena egiteko bide-orria inposatu nahi duen estrategia edo mobilizaziorik bermatu, ezta ere Euskadin.
- Euskadin dagoen ustezko pluraltasun sindikalaren edozein eskenatoki ez dago osorik sindikalismo konfederalaren parte-hartzerik gabe eta gure erakundearekin batera mahai bateratu batean eseritzeko gai ez diren erakunde sindikal horien hipokresiaz jantzia da. Gure presentzia euren jarrerak bermatu eta zurrizko besterik ez dute erabiltzen. Ez da pluraltasuna aldebakartasuna baizik, eta aldebakarreko apustu soberanistak ezkututzen ditu erabakitzeke eskubidearen defentsaren aterkipean.
- Horregatik, gizartearen dibertsitatea errespetatu beharko luketen gobernuek sustatutako estrategia arduragabeen erdian Euskadiko CC00k nazio anitzeko elkarbizitza bilatzen duen elkarriketaren aldeko apustua azpimarratu nahi du.
- Agortuta dagoen eredu autonomikoa gainditzen duen nazio anitzeko eredu federala, herri kontsulten inguruko arauketa itundua, ordinaltasuna finantziario sistemaren elkartasunean eta erakunde komunen lurralde banaketa bezalako elementuak, beste batzuen artean, amildegitik urrundu gaitzakete eta bide zein konponbide berriak ekarri.